

AITZINAROKO GIZARTEAK ETA KULTURAK: 4.PRAKTIKA

46B taldea: BELATE AMONDARAIN CASADO.

1. Azaldu termino hauek:

Commentariolum petitionis: Kinto Tulio Zizeronek K.a I.mendearen erdialdean egindako kanpaina esku-liburua litzateke. Bere anaia zen Markori zuzenduta dago. Bertan, hautagaiak euren kanpainarako baliagarriak zitzaen aholkuak eta hausnarketak zituen, helburu gisa, hautagaiak eskuratu nahi zuten kargua lortzea zuena.

Ius suffragii-a: Erroman bozka eskubidea zen. Hiritarrak zuten eskubidea litzateke, hots, lurjabeak, soldaduak, nobleak...eta noski gizonak. Ohorezkoa zen eskubide hori izatea.

Adsectatio-a: Hautagaiak bere indar potentziala erakusteko (indar erakustaldia egiteko), bere inguruan jarraitzaileak izan eta erakutsi behar zituen, *séquito* deritzoguna izaten. Gaur egun, figura hauek ezagunak zaizkigu *Hautoeskunde agenteak* izenarekin, zeinak hautagaia arrakasta izatera heltzerako bidean laguntzen zuten.

Prensatio-a: Publizitatea egiteko beste modu bat zen. Propaganda elementua eraginkorra zen, keinu politikaren baitan hautagaiak bozka-emailei euren bozka ziurtatzea baitzen. Esku emanak ziren eta hautagai-bozkatzailearen harremana estutzeko eta hautagaia gertutasuna adierazteko balio zen. Tratu pertsonala forma bat zen.

Ambitus-a: Erroman hatoeskunde kanpaina *ambitus* izenarekin ezagutzen zen. Bere esanahia "norbaiti zerbait eskatzeko gerturatzea" litzateke eta termino latindarra, denbora igaroz, esanahia negatiboa eskuratu zuen. Terminu gisa, ustelkeri elektoral edo iruzur elektoralari erreferentzia egiteko balio zitzaien. Ambitus-a egitean, zentzu negatiboa eukitzean, juridikoki ondorioak zekarren. Honen praktika, ohitura elektoralak aldatzen zituen, nobilitasari eragina suertatuz.

2. Azaldu zer diren contiones-ak eta zer funtzio zuten hauteskunde-prozesuan.

Asanblada ez determinatzaileak ziren, hau da, erabakitze funtzioa ez zuten asanbladak ziren. Hiritarrak biltzen zituen, bertan euren iritziak eta proposamenak emanez, baina gerora begira ez zuten inolako eraginik erabaki politikoetan. Magistratuek *contio*(asanblea) deitu zein zuzentzen zituzten. Teknika propagandistiko bezala eraginkorra zen, finean, baliabide honen bidez, hautagaiek euren diskurtsoak bota zezaketen, entzuleengan eta magistratuengan eragina izanik. *Comicio*etan ez bezala, contioak edozein egunetan dei zitzaizkiren eta emakumeen papera, iturriek deuseztatu arren, garrantzitsua zen. Azkeneko ideia harturik, emakumeek bozka eskubidea(ius suffragii) ez izan arren, hautagaien proposamenak eta diskurtsoak entzutean, iritzi jakin bat sortzen zuten eta hainbat esparruetan (publiko zein pribatuetan) iritzi jakin horren aldeko posizioak sortzen zituzten. Azkenik aipatu beharra dago, adierazpen askatasunarako bidea zuen unea zen.

3. Azaldu zer eginkizun zuten emakumeek hauteskunde-prozesuan.

Aurreko galderan aipatu legez, *contiones*etan entzule gisa zeuden. Iritzi eragina elementua zen emakumea, lehen esan bezala eragin esparruetan ziren espazioetan, asanbleetan sortutako iritzia plazaratzen zutelako. Ideia honi helduz, ageria zen nola unitate familiarren baitan eragin funtzioa zeukaten eta bizitza publikoari erreparatuz, tabernetan, dendetan...eragiteko espazioak zituzten, euren iritzia jende asko biltzen zituen espazioetan plazaratzen baitzuten. Honengatik guztiagatik, emakumeek hiritar eskubideak ez izan arren, hau da, asanblea zenturiadaren parte ezin zen egon, ez senatuan egon, ez magistratua izan, bakarrik hainbat Apaiz etheen kidea izan zitekeen (eskola Bestalak).

4. Azaldu zer erabiltzen zuten erromatarrek hauteskunde-propaganda egiteko.

Lehenik eta behin, *contiones*ak ditugu, aipatu bezala eragin espazioak ziren eta publikoak ziren heinean, jende ugari biltzen zuen, jende horrengan eragina izanik. Hautagaiaren, publizitatea egiteko mausoleoak eraginkorrak ziren, finean, hilobien fatxadak horma bezala erabiltzen zituzten propaganda eta kontrako propaganda (hautagaien kontrako propaganda) egiteko, adibide gisa, Ponpeiako mausoleoak ditugu. Prensatioa terminoetan azaldu dugun eran, baliagarria zitzaien gertutasuna aiderazteko, horrek daukan eragin propagandistiko onuragarriarekin. Bestetik, *nomenclator*aren figura oso garrantzitsua zen hautagaien propagandarentzat; haien funtzioa Erromako familia eta pertsona garrantzitsuen izenak eta haiei buruzko informazioa jakitea zen, hautagaiari xuxurlatzeko eta bozkatzailleak irabazteko. *Adsectatio*a izatea nabari laguntzen zuen hautagaia, indarra eta eragina zuela, hau da, hautagai indartsua zela adierazten baitzuen. Azkenik, hautagaiaren berezko ezaugarri garrantzitsua dirua izatea litzateke; hautoeskunde kanpainan ekonomikoki gastuak kubritu behar zituzten eta *largitiones*ak emateko baliabide ekonomikoak izan behar zituzten. Azkenik, gladiadore borrokak, euren propaganda egiteko uneetan bihurtu zituzten.